



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2016/2017 denboraldia

27 ZK.DUN ZIRKULARRA

EUSKADIKO EMAKUMEZKOEN LIGARAKO IGOERA-ALDIA

Datorren denboraldian Euskadiko Emakumezkoen Ligan gertatzen diren huts plaza posibleak osatzeko asmoz, eta Batzorde Nagusian hitzarturiko txapelketa-oinarriei jarraiki, igoera-aldia antolatu da, honako arauak oinarri harturik:

1.- Parte-hartzaileak

Lurralde bakoitzeko maila goreneko Emakumezkoen Ligan bigarren postuetan sailkaturiko taldeak:

Altzarrate K.E.	(Alava)
Ezkurdi K.T.	(Bizkaia)
Anaitasuna F.T.	(Gipuzkoa)

2.- Txapelketa-sistema

Izendaturiko formularen bidez egingo da (HIRU BATEAN). Partidek berrogeita bost minutuko iraupena izango dute. Maiatzaren 27an jokatuko dira Durangoko Tabira futbol zelaian (belar artifiziala). Partidak honako ordenan jokatuko dira:

Ezkurdi K.T. – Anaitasuna F.T.	18,15 etan
1. Galtzailea – Altzarrate K.E.	19,15 etan
1. Irabazlea – Altzarrate K.E.	20,15 etan

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

3.- Arbitraiea

Partidak zuzentzeko Lurralde Maila Goreneko lau arbitroek aukeratuko dira. Gastuak Euskadiko Federakundearen pentzudakoak izango dira

4.- Zigorrak

Txapelketaren ezaugarriak direla eta, Ohiko Ligaren zigorrek ez dute ondorerik izango bertan. Zigor horiek hurrengo denboraldian kontuan hartuko dira.

Aurrekoa jakinarazi zaie parte hartuko duten klubei, Lurralde Federakundeei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak sor ditzan.

Bilbo, 2017ko maiatzaren 22a

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

EUSKADIKO EMAKUMEZKOEN LIGARAKO IGOERA-ALDIAREN ARAU OROKORRAK, "HIRU BATEAN" IZENeko SISTEMAREN ARABERA.

JOKALARI KOPURUA

Talde bakoitzak 18 jokalaria aurkeztu ahalko ditu, gehienez, txapelketa osoan joka dezaten.

JOKALARIEN ALDAKETAK

Partidetan, gehienez, hiru aldaketa egin ahalko dira. Ordezkoak, gehienez, zazpi izango dira.

KANPORATZEAK

Lehenengo partidaren kanporaturiko jokalaria oro ezin izango da bigarren partidako jokalaria-zerrendan sartu, eta beste batez ordeztu beharko da.

BERDINKETAK

Balizko berdinketak EFF-k indarrean duen Araudiaren III. Liburuko 101.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

- a) Txapelketaren partida guztiak kontutan harturik, jasotako eta sartutako golen diferentzia handienaren arabera.
- b) Sartutako gol kopuru handienaren arabera, txapelketa osoan zehar lortutako gol kopurua kontutan harturik.
- c) Elkarren artean jolastutako partiden emaitzaren arabera.

Partida bakoitza bukatutakoan, emaitza zeinahi dela ere, bost jaurtiketa egingo dira penalti-gunetik, taldeetako batek irabazten duen arte. Emaitza hori kontuan hartuko da aldiaren sailkapen nagusian gerta daitezkeen berdinketak desegiteko azken aukera gisa.

Era berean, lehenengo partidaren berdinketarik gertatuz gero, jaurtiketa horien bidez erabakiko da zein den irabazlea, bigarren partida jokatze aldera.

BALOIAK

Beroketa egiteko, klub bakoitzak egoki irizten dituen beste baloi eramango ditu.

-O-O-O-O-O-O-O-O-